

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak jendeari arreta emateko bulegoen eta inprimakien irisgarritasun-baldintzak ezarri ditu

Edonolako urritasun eta mugak dituztenei behar bezalako arreta eman nahi zaie, baita adinez nagusiak direnei eta hizkuntza menderatzen ez dutenei ere

Lunes, 18 de agosto de 2014

Nafarroako Gobernuak jendeari arreta emateko bulegoek zein inprimakiek (aurrez aurre zein Internet bidez betetzen direnak) eta web-orriek bete beharreko baldintzak ezarri ditu, Foru Komunitateko administrazioak herritarrei ematen dien arretarako irisgarritasuna unibertsala dela bermatzeko.

Gaur, abuztuak 18, [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) argitaratu den Foru Dekretu batean ezarri dira neurriak.

Zehazki, Foru Dekretuak herritarren harremanak arautzen ditu eta honako beste gai hauen antolaketaz eta diseinuz arduratzen da: bulegoak; arreta pertsonala eta horretarako erabiltzen den teknika; administrazio-prozeduren izapideak eta informazioa lortzeko modua; Administrazioaren eta eskaintzen diren zerbitzuen web-orrien ezaugarriak; inprimakiak, orriak, idatzitakoak eta Internet bidezkoak, eta komunikazioa, idatzizkoa zein Internet edo telefono bidezkoa. Zera azaltzen da arrazoen atalean: "guztientzako diseinua lortu nahi da, diskriminaziorik gabe, ahal dela urritasun fisikoak, psikikoak eta zentzumen-urritasun guztiak barne hartzen dituen, muga funtzionala edozein dela ere, adinez nagusiak edo hizkuntza menderatzen ez dutenak barne hartuta".

Bulegoen diseinua

Honako irizpide hauek ezarri dira, besteak beste: bulegoak beheko solairuetan jartzea; kanpoaldean behar diren seinaleak agertzea; gurpil-aulkietan doazen edo gida-txakurrak zein mugitzeko bastoiak behar dituztenentzako sarbidea; moztadoreen altuera egokia; zoladura, edo mugikortasun murriztua dutenentzako aparkalekuak gordetzea.

Halaber, garrantzitsua den informazio gutzia hiru zentzumenetatik



Mugikortasun murriztua ezin da izan Foru Administrazioarekin harremanetan egoteko oztopoa.

(ikusmena, entzumena eta ukipena, goi-erliebea edo braillea) gutxienez bitan jakiteko moduan agertzea.

Herritarrei arreta emateko bulego guztien irisgarritasuna indartzeaz gain, Foru Dekretuak arreta emateko gune-sistema abian jartzeari buruzko aurrerapena egin du; geroagoko foru-agindu batean jasoko da.

Agiriak eta webgunea

Foru Dekretuan ezartzen denez, herritarrek, administrazioko agiriak eta inprimakiak eskuratzeko, kokapen irisgarri bat edo langileen laguntza izan behar dute. Honako hauek ere aipatzen ditu: letraren tamaina, paper mota, hizkuntza erraza eta zuzena etab.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren web-orrietan dagoen informazioak adinekoek eta urritasunen bat dutenek jakiteko modukoa izan behar du. Nabigazioa, formatuak, letra-tipoaren estiloa eta tamaina eta abar ere aipatzen dira.

Urritasunen bat duten pertsonetikiko harremanak

Nolanahi ere, urritasunen bat duten herritarrek eskubidea izango dute haien egoeraren berri emateko Administrazioa bidaltzen dituzten idatzietan, Administrazioak komunikazioa egoerara egoki dezan.

Administrazioko baliabideez gain, kontratuen baldintzen agirietako klausula teknikoetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurriak gehituko dira, kontratu horiek betetzearen ondorioz herritarrei zuzeneko arreta edo zerbitzuak eskaini behar zaizkienean.